

**II. ERANSKINA**  
**Gai Zerrenda**  
**GESTIOKO TEKNIKARIEN ESKALAKO LAN POLTSA (INGURUMENA)**

- 1) 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan arriskuen Prebentzioari buruzkoa (UPV/EHUn aplikatuta).
- 2) 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa (EAE); eta UPV/EHUren II. Berdintasun Plana (2014-2017).
- 3) Garapen Jasangarrirako Nazio Batuen 2030 Agenda. Aurrekariak, helburuak, xedek eta adierazleak. Euskadi Basque Country 2030 agenda.
- 4) 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra, eta lege hori aldatzen duen araudia. Xedea eta helburuak. EAEko ingurumen politikari buruzko xedapen orokorrak. EAEko Ingurumenaren Esparru Programa 2020. Ingurumen politikako tresnak.
- 5) 27/2006 Legea, uztailaren 18koa, ingurumen gaietan informazioa eskuratu, publikoki parte hartu eta auzitegitara jotzeko eskubideak arautzen dituena.
- 6) Kutsadura atmosferikoa. Kutsatzaile atmosferiko motak, haien jatorria eta ezaugarriak. Atmosfera kutsa dezaketen jarduerak.
- 7) 34/2007 Legea, azaroaren 15koa, airearen kalitateari eta atmosferaren babesari buruzkoa; 102/2011 Errege Dekretua, urtarrilaren 28koa, airearen kalitatea hobetzeari buruzkoa; eta 39/2017 Errege Dekretua, urtarrilaren 27koa, airearen kalitatea hobetzeari buruzko urtarrilaren 28ko 102/2011 Errege Dekretua aldatzen duena.
- 8) 278/2011 Dekretua, abenduaren 27koa, atmosfera kutsa dezaketen jardueretarako instalazioak arautzen dituena. 278/2011 Dekretua garatzeko jarraibide teknikoak. Industria isurien araudia. PRTR erregistroa. Isuriak neurtu eta kontrolatzeko sistemak. Gas eta partikula kutsatzaileak tratatu eta arazteko teknikak.
- 9) Airearen kalitatea neurtzeko sareak. EAEko airearen kalitatea kontrolatzeko sarea. Airearen kalitatearen indizea. EAEn airearen kalitatea ebaluatzea. Airearen kalitatearen bilakaera EAEn. Airearen kalitatea hobetzeko planak.
- 10) Klima aldaketa: elementu gakoak. Klima aldaketari buruzko nazioarteko akordioak. Klima aldaketari buruzko Europako ibilbide orria. Klima aldaketaren Euskadiko estrategia: Klima 2050 Basque Country. Berotegi efektuko gas isuriak murrizteko ekintzak: arintzea eta egokitzea.
- 11) Berotegi efektuko gasak eta iturriak. Berotegi efektuko gasen isurien salerosketari buruzko araudia. Karbono aztarna: kontzeptua eta kalkulu metodologiak.
- 12) Energia berriztagarriak eta berriztaezinak: motak eta ezaugarriak. Eraginkortasun energetikoa. Energia aurrezpena: kontzeptua eta neurriak. Auditoria energetikoak. 226/2014 Dekretua, abenduaren 9koa, eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtagiriari buruzkoa.
- 13) Euskadi 2030 estrategia energetikoa. 178/2015 Dekretua, irailaren 22koa, EAEko arlo publikoaren jasangarritasun energetikoari buruzkoa.



- 14) 4/1990 Legea, maiatzaren 31koa, Euskal Herriko lurralde antolakuntzari buruzkoa, eta lege hori garatzen duen araudia. Hirigintza plangintzan aplikatu daitezkeen jasangarritasun irizpideak.
- 15) Mugikortasun segurua eta jasangarria. Mugikortasunaren gizarte, ekonomia eta ingurumen eraginak murrizteko ekintzak.
- 16) Informazio geografikoko sistemak. Sistema motak eta funtzionalitateak. 14/2010 Legea, uztailaren 5koa, Espainiako informazio geografikoko azpiegituri eta zerbitzuei buruzkoa. Geoeuskadi: Euskadiko Datu Espazialen Azpiegitura (DEA).
- 17) 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoa. Hondakinen politikaren printzipioak eta administrazio eskumenak. Hiri hondakinak. Motak eta ezaugarriak. Europako Hondakinen Zerrenda. Hiri hondakinen sailkapena, bilketa eta tratamendua. Legedi aplikagarria. EAEko Hondakinen prebentzio eta kudeaketa plana 2020. Hondakinen prebentzioa, berrerabilpena, birziklapena eta balorizazioa sustatzeko ekintzak.
- 18) Hondakin arriskutsuak. Identifikazioa eta ezaugarriak. Arriskutsutzat har daitezkeen hondakinen ezaugarriak. 1357/2014 Erregelamendua, abenduaren 18koa, zeinaren bidez ordeztu baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskina; eta 2017/997 Erregelamendua, ekainaren 8koa, zeinaren bidez ordeztu baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskina. Hondakin arriskutsuen sailkapena, bilketa eta tratamendua. Legedi aplikagarria. Hondakin arriskutsuen prebentziorako planak. Hondakin arriskutsu motak UPV/EHUn. UPV/EHUn hondakin arriskutsuak kudeatzeko prozedura. UPV/EHUn hondakin arriskutsuak minimizatzeko ekintzak.
- 19) 4/2015 Legea, otsailaren 4koa, lurzoria kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa. EAEko Lurzoru Kutsatuen Inbentarioa. Lurzoria kutsa dezaketen jarduerak eta lurzoru kutsatuak izendatzeko irizpideak eta estandarrak. 9/2005 Errege Dekretua, urtarrilaren 14koa, XI. eranskina. Kutsatzaile motak. Lurzoruaren erabilerak. Arriskuaren ebaluazioa. Erreferentzia maila generikoak. Lurzoruak lehengoratzeko teknikak.
- 20) Uraren kutsadura. Uraren kalitateari lotutako parametro fisikoak, kimikoak eta mikrobiologikoak. Kutsatzaile berriak. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000/60/EE Zuzentaraua, urriaren 23koa, uraren esparru zuzentaraua. 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, urarena.
- 21) Uraren erabilerak eta aprobetxamenduak. Baliabide hidrikoen eskaera eta kontsumoa. Uraren kontsumoa txikitzeko eta ura berrerabiltzeko ekintzak. Ura kutsa dezaketen jarduerak. Uretara eginiko isurien ingurumen inpaktua. Uraren babesa. Isuriak baimentzea eta isurien kontrol kanona. Legedi aplikagarria.
- 22) Efluenten kutsadura txikitzeko teknologiak. Tratamendu motak. Ur lerroa eta lohi lerroa.
- 23) Ingurumen inpaktuaren ebaluazioa. Ingurumen inpaktua. Ingurumen inpaktuaren azterketa. Ingurumen inpaktuaren ebaluaziorako tresnak eta metodologiak.



- 24) 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen ebaluazioari buruzkoa. Proiektuen ingurumen ebaluazioa eta planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoa. Ingurumen inpaktuaren ebaluaziopean dauden jarduerak.
- 25) Kutsadura akustikoa. 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, zaratari buruzkoa. 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, EAEko hots kutsadurari buruzkoa. Kutsadura akustikoaren prebentzioa eta zuzenketa.
- 26) 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua, abenduaren 16koa, kutsaduraren prebentzioari eta kontrol integratuari buruzko Legearen testuategina onartzen duena. Xedapen orokorrak. Emisioen muga balioak eta eskura dauden teknika egokienak. Ingurumen Baimen Integratuaren araubide juridikoa.
- 27) 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, ondare naturalari eta biodibertsitateari buruzkoa. Natura Sarea 2000 eta beste ingurune natural babestu batzuk. Espezie mehatxatuen katalogoak eta kudeaketa planak. 167/1996 Dekretua, uztailaren 9koa, basa eta itsas fauna eta landaredian arriskuan dauden espezieen Euskadiko zerrenda arautzeko dena. EAEko inguru natural nagusiak. EAEko Biodibertsitate Estrategia 2030.
- 28) Ingurumen kudeaketako sistemak (IKS). Ingurumen berrikuspen faseak: hasierakoa, plangintza, inplementazioa, eta egiaztapena eta berrikuspena. ISO 14001:2015 araua, Eko-kudeaketako eta Eko-auditoriako Erregelamendu Komunitarioa (EMAS) eta ingurumen hobekuntzarako Ekoscan araua. Ezaugarri diferentzialak, eskakizunak eta inplementazioa. Ingurumen berrikuspen faseak: hasierakoa, plangintza, inplementazioa, eta egiaztapena eta berrikuspena. Integrazioa
- 29) Ingurumen auditoriak. Definizioa, irismena eta helburuak. Ingurumen auditoria motak. Ingurumen auditoria bat egiteko edukia eta metodologia. Kontuan hartu beharreko alderdi teknikoak.
- 30) Ingurumen arloko beste kudeaketa tresna batzuk. Bizi zikloaren eta ingurumen aztarnaren analisia: kontzeptua, tipologia eta kalkulu metodologiak. Ingurumen ikuspegitik jasangarriak diren jardueren Erronka Garbia ziurtagiria.
- 31) Erosketa eta kontratazio publiko berdea. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, sektore publikoko kontratuena. Administrazio klausula partikularren eta baldintza teknikoen agiria. Kontratuak esleitzeko prozedurak eta modua. Kontratazio organoa.
- 32) Produktuaren ekoetiketa edo ingurumen etiketa. Etiketak identifikatzea eta interpretatzea.
- 33) Ingurumen Hezkuntza, Garapen Jasangarrirako Hezkuntza eta Jasangarritasunerako Hezkuntza: kontzeptua eta garapen historikoa. EAEko jasangarritasunerako hezkuntza estrategia 2030.
- 34) Garapen jasangarrirako eskumenak: gaitasunak, jarrerak eta helburu balioak.
- 35) Jasangarritasunerako Hezkuntzaren integrazioarako hezkuntza curriculumaren berrorientazioa: elementu gakoak eta tresnak. Jardunbide egokiak jasangarritasunerako hezkuntzan. Ingurumen arloko boluntarioak. Ekintza boluntarioaren ezaugarriak eta



balioak. Jardun eremuak. Boluntarioria proiektuen kudeaketa eta antolakuntza.

